



# Erandioko leku-izenak

GURE HERRIKO HAINBAT LEKU-IZENEN  
BILAKAERA ULERTZEKO GIDA

GUÍA PARA ENTENDER LA EVOLUCIÓN  
DE ALGUNOS NOMBRES DE LUGAR DE ERANDIO

## Toponimia de Erandio

Iratxe Lasa Arana

ERANDIO  
RAZON  
HISTORICO





**ERANDIO**  
ELIZATEKO UDALA



AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE ERANDIO  
**BIZKAIA**



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



KULTURA SAILA  
Hiruakuntza Politikariaren Salburuordetza

# Erandioko leku-izenak

GURE HERRIKO HAINBAT LEKU-IZENEN  
BILAKAERA ULERTZEKO GIDA

GUÍA PARA ENTENDER LA EVOLUCIÓN DE  
ALGUNOS NOMBRES DE LUGAR DE ERANDIO

## Toponimia de Erandio

**Argitaratzailea** Edita

**Erandioko Udala / Euskara Zerbitzua** Ayuntamiento de Erandio / Servicio de Euskera

**Euskarazko testuak** Textos en euskera

**Iratxe Lasa Arana**

**Toponimia ikerketaren egilea eta Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko kidea**

Autora del trabajo de recogida de Toponimia y miembro de la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca

**Argazkiak** Fotos

**Euskara Zerbitzua eta beste hainbat egile** Servicio de Euskera y varios autores

**Esker onez FOAT S.L. enpresari** Agredecemos la colaboración de la empresa FOAT S.L.

**Toponimoen normalizazioa** Normalización topográfica

Euskaltzaindia

**Itzulpena** Traducción

Hori-hori

**Testuen zuzenketa eta orrazketa** Corrección y adecuación de los textos

**Erandioko Euskara Zerbitzua** Servicio de Euskera de Erandio

**Diseinua eta maketazioa** Diseño y maquetación

Aunia Kultura Elkartea

**Argitalpen data** Fecha de publicación

2009

**Liburuxka hau Erandioko toponimia maparekin batera banatu da. Salmenta debekatua.**

Este libro se entrega junto con el mapa topográfico de Erandio. Prohibida su venta.



# Aurkibidea

Alkatearen aurkezpena . . . . .	8
Hitzaurrea . . . . .	12
Toponimia: zer da eta zertarako ikertu. . . . .	14
Erandioko toponimia historian zehar. . . . .	16
Erandioko toponimia, herri euskaldunaren toponimia. . . . .	16
Erandioko etxaldeak mendez mende . . . . .	18
Erandio herria. . . . .	22
Erandioko leku-izenak auzoz auzo . . . . .	24
Altzaga ( <i>Desertu, Erandiobekoa</i> ) . . . . .	28
Arriaga . . . . .	36
Astrabudua . . . . .	44
Asua . . . . .	52
Goierrri . . . . .	60
Erandiogoikoa ( <i>Landa, Campa</i> ) . . . . .	70
Lutxana-Enekuri . . . . .	82
Errekak, iturriak, basoak, kanterak . . . . .	86
Erandioko kale-izendegi berria: idazkera zuzenerako argibideak . . . . .	94

# índice

Presentación del alcalde . . . . .	10
Introducción . . . . .	13
Toponimia: qué es la toponimia y objetivos de la investigación . . . . .	15
Toponimia de Erandio a lo largo de la historia . . . . .	17
Toponimia de Erandio, toponimia de un municipio euskaldun . . . . .	17
Los caseríos de Erandio a lo largo de los siglos. . . . .	19
El municipio de Erandio. . . . .	23
Los barrios de Erandio y sus topónimos . . . . .	25
Alzaga ( <i>Desierto, Erandiobekoa</i> ) . . . . .	28
Arriaga . . . . .	36
Astrabudua . . . . .	44
Asua . . . . .	52
Goierrri . . . . .	60
Erandiogoikoa ( <i>Landa, Campa</i> ) . . . . .	70
Lutxana-Enekuri . . . . .	82
Arroyos, fuentes, bosques, canteras . . . . .	87
Nuevo callejero de Erandio: aclaraciones sobre la grafía correcta. . . . .	95

# Alkatearen aurkezpena



Atsegin handia da niretzat Erandioko leku-izenei buruzko argitalpen hau kaleratzea, gure herriaren ondarea berreskuratu eta zabaltzeko bidea baita. Izan ere, toponimoetan gorde dira gure herriaren izena eta izana eta toponimoak dira gure herriaren aldaketa-taren lekuko.

Erandioko hainbat leku izen galtzean zeudela ikusita, berandu izan baino lehen ekin nahi izan diogu lanari; izen horiek bildu, arautu eta kokatzea izan zen gure helburua 2005ean Toponimia beka Iratxe Lasa filologo eta ikerlariari esleitu genionean.

Berak, batetik, agirietan eta liburuetan gorderik zeuden izenak batu ditu eta bestetik, erandioztar nagusiek oraindik gogoan dituztenak ahoz jaso eta kokatu ditu.

Bilketa lanari amaiera emateko, erakusketa eta hitzaldiak antolatu genituen 2007ko azaroan Altzagan, Astrabuduan eta Erandiogoikoan. Hitzaldi horietan lanaren berri eman eta nondik norakoak azaldu ziren; bertan hainbat herritarren laguntzari esker zalantzak argitu eta ekarpenak jaso ahal izan genituen.

Azkenean, egindako lanaren emaitza hiru formatutan aurkezten dizuegu. Batetik, mapan gaur egun bizirik dauden toponimoak agertuko dira, bestetik, liburuxkan, hainbat leku-izenen grafia zein forma arautuaren zergatiak azaltzen dira eta, azkenik, jasotako toponimo guztiak udalaren webgunean dituzue eskura, 1800 inguru batu baitira.

Erandioko leku-izenen ondarea erandioztar guztiona da eta guztioi dagokigu bizirik mantentzea. Horixe da, izan ere, lan honen azken helburua: gure izana izenetan gordetzea eta ondorengoei ahalik eta modurik egokienean transmititzea, herriko historiaren lekuko fidelenak baitira. Jakin badakigu

toponimia lanak ez direla sekula amaitzen eta egindakoa ez dela ikerketa lan itxia. Horregatik, esker onez hartuko ditugu zuzenketa, osaketa zein aldaketa proposamenak eta horretarako bidea irekita uzten dugu.

Ezin ditut lerro hauek amaitu, baina, Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeari eskerrak eman gabe, batez ere Mikel Gorrotxategi eta Patxi Galéri, eskainitako lagunza eta aholkuengatik. Ez ditut ahaztu gura ere bekaren gidaritzan aritu diren Amaia Arriaga eta Floren Zarraga, lekuoak proposatzen, lana gainbegiratzen eta aholkuak ematen borondatez eskaini diguten denboragatik. Baino batez ere, nire eskerrik beroenak, beraien jakintzaren altxorra udalaren eta erandioztarren esku utzi duten herritarrei, ezeren trukean laguntzeko prest agertu direlako, eta guztiak hemen aipatzea zilegia bada ere, ezinezko izan zaigu zerrelda luzeegia da eta. Azkenik, Aitziber Oliban zinegotziari eskertu nahi diot lan honi ekiteko erabakia hartu izana.



Alkatea  
Joseba Goikouria Zarraga

Es para mí un placer presentar esta publicación sobre los topónimos de Erandio, en la medida en que puede ayudar a recuperar y dar a conocer una parte importante de nuestro patrimonio, porque los topónimos conservan la esencia de nuestro pueblo y son testigos de la transformación que ha sufrido a lo largo de la historia.

Conscientes de que en Erandio había nombres de lugares que iban desapareciendo junto con sus conocedores, decidimos emprender esta tarea antes de que fuera demasiado tarde; cuando adjudicamos la beca de toponimia a la filóloga e investigadora Iratxe Lasa nuestro objetivo era recopilar, normalizar y situar correctamente el mayor número posible de nombres de lugares de Erandio.

Ella, con muy buen hacer, en una primera fase ha recopilado los topónimos que aparecen en archivos y libros; seguidamente ha recogido de forma oral y situado aquellos topónimos que todavía permanecen en la memoria de las y los erandioztarras de más edad.

Para finalizar el trabajo de recopilación, en noviembre de 2007 se realizaron en Altzaga, Astrabudua y Erandiogoikoa exposiciones y charlas, mediante las cuales se dieron a conocer los pormenores del trabajo realizado hasta entonces y, gracias a la colaboración de las personas que participaron, se pudieron aclarar algunas dudas a la vez que se recogieron muchas aportaciones.

Ahora os presentamos en tres formatos el fruto del trabajo realizado: por una parte, en el mapa se recogen aquellos topónimos que todavía conservamos. Por otra parte, en el librito, hemos tratado de explicar las razones por las cuales hemos normativizado y adecuado la grafía de algunos nombres que se habían desfigurado con el paso de los años. Y por último, en la web del ayuntamiento se puede consultar la base de datos en la que figuran los 1.800 topónimos recogidos.

El patrimonio que ponemos a vuestra disposición es de las y los erandioztarras y a todos nos corresponde mantenerlo y transmitirlo a las próximas generaciones de la forma más rigurosa posible. Ése es el fin último de este trabajo, ya que la toponimia es uno de los testigos más fieles de nuestro pasado.

Sé que los trabajos de toponimia no se pueden dar nunca por finalizados y que el trabajo de investigación realizado no está cerrado. Por eso agradeceremos todas las aportaciones y propuestas de corrección que podamos recoger, para lo que dejamos la puerta abierta.

No puedo concluir estas líneas sin dar mi agradecimiento a la Comisión de Onomástica de Euskal-tzaindia, y especialmente a Mikel Gorrotxategi y Patxi Galé, por la ayuda y consejos con los que nos han guiado. Igualmente quiero mencionar a Amaia Arriaga y Floren Zarraga que han colaborado en la dirección de esta beca prestando voluntariamente sus conocimientos.

Pero sobre todo quiero agradecer sinceramente a aquellas personas de Erandio que además de guardar en su memoria los nombres de innumerables rincones de nuestro municipio, han colaborado voluntariamente en esta investigación, ofreciéndonos su tiempo y su saber. No tenemos aquí el espacio suficiente para mencionar a todas esas personas, pero quiero que conste mi reconocimiento para todas ellas.

En último lugar, quiero dar las gracias a la concejala Aitziber Oliban, que tomó la decisión de emprender este difícil trabajo y que ha sabido llevarlo a buen puerto.



Alcalde  
Joseba Goikouria Zarraga

## Presentación del alcalde



# Hitzaurrea

Hemen aurkezten den liburuxka hau 2005-2008 urteetan egin-dako ikerketa-lanaren ondorioa da. Erandioko Udalak, Euskara Zerbitzuaren ekimenez, herriko toponimia ikertzeko beka-deialdia antolatu zuen 2005ean. Ikerketak emaitza aberatsak eman ditu, eta liburuxka honetan emaitzok batu eta herritarren esku ipini nahi izan ditugu.

Ikerketak iraun duen bitartean, Erandioko leku-izenei buruzko informazio eta dokumentazio asko bildu dugu. Gaur egun bizirik diren leku-izenez gain, desagertutako leku-izenak ere bildu dira. Horretarako, artxibo zaharrak arakatu behar izan dira. Guztira, gutxi gorabehera, Erandioko 1.800 lekuren izenak jaso dira. Halere, leku asko, hainbat etxalde esate baterako, desagertu egin dira aspaldian, hirigintza antolakuntzak edo beste arrazoi batzuek eraginda. Gainera, kasu batzuetan, izenen ahoskera aldatuz joan da, ahoskera ezberdinak izan dituzte, beste batzuetan jatorrizko forma osoa aldatu da edota beste izen bat hartu dute. Leku-izenen desagertze-prozesu hori geldiaraztea izan da, hain zuzen ere, ikerketari ekiteko arrazoi nagusia.

Dokumentazio zaharra biltzeaz gain, leku-izenen ikerketa honetan erandioz tar batzuek ere modu aktiboan hartu dute parte, eta euren memorian gorderik zuten informazioa gure esku jarri dute, eta zalantzarik ez izan, euren laguntza eta ekarpenik gabe lan honen emaitzak ez zirela hain aberatsak izango. Honenbestez, esker mila, informazioa eman eta ekarpenak egin dituzten guztiei, baita lan honetan, era zuzenean edo zeharka, parte hartu duten gainerakoei ere.

Edozelan ere, akatsik balego, erantzukizun osoa gurea da. Tamaina honetako lanetan erraza da, nahi gabe bada ere, okerren bat egitea; eta horrela bada, aldez aurretik, barkamena eskatu nahi dugu, ez baitugu asmo txarrez egin. Era berean, toponimia biltzeko lanek amaierarik ez dutela ulertzen dugu, datu, material eta lekukotza berriak beti agertu ahal dira eta argitaratutakoa baiezatzeko, argitzeko edota zuzentzeko balio izaten dute. Edozein ohar atsegin handiz hartuko dugu. Horretarako webgu-nean toponimiaren bilketa lan osoa, argazkiak eta mapak kontsultatu ahal izateaz gain, zuen ekarpenak ere barneratzeko aukera izango dugu.

# Introducción

La publicación que se presenta a continuación es fruto del trabajo de investigación realizado entre los años 2005 y 2008. En el año 2005, por iniciativa del Servicio de Euskeria, el Ayuntamiento de Erandio convocó una beca para estudiar la toponimia del municipio y el desarrollo de esa beca ha propiciado resultados muy valiosos, que ahora os presentamos a través de esta publicación. Durante el periodo de realización del estudio, se ha recopilado abundante documentación sobre los topónimos o nombres de lugares de Erandio. Así, además de los nombres que se encuentran en uso hoy en día, se han recuperado topónimos ya desaparecidos. Para ello, se ha indagado en los archivos antiguos y, en total, se han recogido aproximadamente 1.800 topónimos. En cualquier caso, hay que tener en cuenta que muchos parajes de antaño (diversos caseríos y su entorno, por ejemplo) han desaparecido o se han transformado enormemente. Además, muchos nombres han variado de pronunciación a lo largo del tiempo, algunos hasta perder cualquier reminiscencia del original, y otros han sido reemplazados por topónimos más recientes. La razón principal de este trabajo de investigación ha sido, precisamente, detener el proceso de desaparición de los topónimos propios de Erandio. Además de buscar en documentos antiguos, también hemos contado con la participación activa de personas del municipio que han puesto a nuestra disposición información retenida en su memoria, y sin lugar a dudas, los resultados de este estudio no hubieran sido tan fructíferos sin su ayuda y colaboración. Por tanto, queremos dar las gracias a todas aquellas personas que nos han proporcionado información, así como a quienes directa o indirectamente han participado en este trabajo.

En cualquier caso, somos conscientes de que cuando el volumen de información que se maneja es importante, es fácil cometer errores. Si ha sido así, pedimos disculpas, ya que la responsabilidad es totalmente nuestra. Igualmente sabemos que un trabajo toponímico nunca concluye totalmente, siempre seguirán apareciendo nuevos datos, materiales o testigos que corroboren, amplíen o corrijan el contenido del trabajo inicial. Agradecemos cualquier aportación que nos queráis hacer llegar, y, si procede, iremos incluyendo vuestras observaciones en la web que va a divulgar el estudio completo sobre la toponimia de Erandio, junto con varios mapas y fotos que también esperamos ampliar con vuestras aportaciones.

# Toponimia: zer da eta zertarako ikertu

Toponimoak leku-izenak dira (grekoz *topos*=leku+*nimia*=izen).

Gure inguruko edozein lekuk izan ohi du izena Euskal Herrian: etxaldeek, errekek, soroek, belardiek, tontorrek, trokek, auzoek, mendi-maldek eta abarrek. Lekuei izena eman ohi diegu, gure eguneroko bizimoduan eta geografian erreferenteak behar ditugulako, lekuaren kokapen zehatzak jakiteko; hortaz, behar praktiko bat erantzun nahi diete lekuaren izenek.

Toponimia Hizkuntzaren atala denez gero, euskarak bizi duen normalizazio prozesuan parte hartu behar du. Horrela, bada, hizkuntza arruntaren eta bere lexikoaren eta gramatikaren erabilera eta grafia arautzen dugun bezalaxe, toponimoen idazkera ere arautze prozesu baten barruan dago. Eta arautze-prozesu honen arau-emaile dugun Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak oniritzia eman behar du edozein toponomioren idazkera erabakitzerakoan, ahozko eta idatzizkoen artean formarik egokiena hautatuz; sarritan alde handia egoten baita betidanik ezagutzen dugun lekuaren baten ahozko izenaren eta jatorrizkoaren artean. Esate baterako, *Basalei* izenaz ezagutzen dugun Arriagako baserriaren jatorrizko izena **Basazelai** da, edo *Bizkotxe* izenaz ezagutzen dugun bidea, **Beaskoetxe** etxaldearen izenetik dator.

Nolanahi ere, Euskaltzaindiak idatzizko forma baino ez du arautzen eta ahozko erabilera herriarena eta herritarrena da, euskal hiztunena alegia. Eurek janzen baitituzte toponimoak bertako euskaran eta euskalkiaren ezaugarriez. Horrela, zenbaitetan idatziz baztertzen den forma *kurtsibaz* eman dugu.

Baina, balio linguistikoa izateaz gain, topónomiak balio historiko handia du, eta hortaz, herriaren ondarea da, zaindu eta gorde beharreko ondarea. Hain zuzen ere Nazio Batuek topónimia "**gizon-emakume guztien ondare material gabea**" izendatu dute.

# Toponimia: qué es la toponimia y objetivos de la investigación

Los topónimos son nombres de lugar o locativos (del griego *topos*=lugar+*nimia*=nombre). En el ámbito del País Vasco, cualquier sitio de nuestro entorno ha poseído un nombre: los caseríos, los arroyos, los campos de cultivo, los prados, las cimas, los barrancos, los barrios, las faldas de los montes... Damos nombre a los lugares como respuesta a una necesidad de referentes relativos a la geografía en nuestra vida diaria, para conocer la situación exacta de los lugares y parajes existentes; por ello, puede decirse que los topónimos responden a una necesidad práctica.

Puesto que la Toponimia forma parte del idioma, debe participar en el proceso de normalización en el que está inmerso el euskera. Así, tal y como reglamos el lenguaje común, su léxico, el uso de la gramática o la grafía, la forma escrita de los topónimos también se encuadra dentro de un proceso de estandarización. Esto que llamamos estandarización consiste en fijar los topónimos normalizados tras haber analizado la documentación y los testimonios orales, siempre tomando como base las reglas básicas de la evolución de la lengua y aplicar las reglas de normalización establecidas por Euskaltzaindia. Es la comisión de Onomástica de Euskaltzaindia la que debe emitir su aprobación a la hora de decidir la grafía de cualquier topónimo.

A menudo, existe una diferencia notable entre la forma oral y el nombre original de lugares que conocemos desde siempre. Por ejemplo, el nombre original del caserío de Arriaga *Basalei* es *Basazelai*, o el nombre del camino al que decimos *Bizkotxe* proviene del nombre del caserío **Beaskoetxe**.

En cualquier caso, Euskaltzaindia solo regula la forma escrita, perteneciendo la forma oral al pueblo y a los hablantes. Es la gente del lugar, los hablantes, quienes realmente añaden a los topónimos las características del habla local o del dialecto de la zona. Así, en la mayoría de los casos hemos expresado en *cursiva* la forma no reglada.

Los topónimos, además de poseer un valor lingüístico, poseen un gran valor histórico, y constituyen un patrimonio popular, que debemos cuidar y conservar. Precisamente la Organización de las Naciones Unidas ha declarado la toponimia como "**patrimonio cultural inmaterial de la humanidad**".

# Erandioko toponimia historian zehar

## Erandioko toponimia, herri euskaldunaren toponimia

Gaur egun Erandiok duen irudia, azken mendean bizi izan duen eraldaketaren ondorioa da, industrializazioarena, alegia. Hala ere, zati handi batean, baserri aldean, ondo gorde du mendeetan izandako itxura bera; eta beraz, bere toponimiak ere herritarren memorian bizirik iraun du.

Erandioko leku-izenak, memoria historikoaren zein azken mendeko historia berriagoaren lekuko dira. Udalerritik honek geografikoki duen banaketa bereziak, bai eta bizilagunen hizkuntzek ere eragina izan dute leku-izenetan; horrela, han-hemen euskarazko nahiz gaztelaniazko toponimoak topatzen ditugu; eta esan beharra dago, modu ezberdinean desagertu, ordezkatu edo itxuraz aldatu direla hizkuntza bateko edo besteko aldaerak.

Nolanahi ere, Erandiok toponimia aberatsa du, eta ondare hori gorde beharra dago, bere historiaren lekukorik zintzoena baita.

Egindako ikerketak erakutsi egin du Erandioko toponimia historiko ia guztia euskalduna dela, eta horrek argi adierazten du Erandio eta erandioztaurrek nagusiki euskaldunak izan direla. Gainera, zorionez, Erandion toponimia ondo zaindu izan da, izan ere baserri-aldea oso handia da, eta bertako bideek inguruko baserri-izenak gorde dituzte. Baino, euskara eta gaztelaniaren arteko elkarbizitzak eragin zuzena izan du toponimian ere, eta jatorrizko izenak aldatu edo desitxuratu egin dira elkarreragin horren ondorioz; fenomeno normala, bestalde, ukipen egoeran dauden hizkuntzetan.

Azken mendeko gizarte-aldaketek, Erandioko zenbait gunetan erdara nagusitzea ekarri dute, eta horrela, toponimian ere horren ondorioak argiak izan dira. Astrabudua edo Altzaga auzoetan batik bat, erdal toponimoak ageri izan dira, denak XX. mendean. Bestalde, euskal toponimoetan, gazteleraren eragina nabari da. Bereziki auzo izenetan edo baserri multzoetan erantsi ohi den amaierako -s dugu horren erakuslerik argiena (*Alzagas, Arriagas* eta abar). Fenomeno hau oso

## Toponimia de Erandio, toponimia de un municipio euskaldun

La imagen que presenta hoy en día el municipio de Erandio es consecuencia de la transformación que ha sufrido en el último siglo, debida, principalmente, a los efectos de la industrialización. De cualquier manera, este municipio ha preservado, al menos en gran parte de la zona rural, un aspecto muy semejante al de varios siglos atrás por lo que la toponimia de antaño se ha conservado también viva en la memoria de la gente del lugar.

Los topónimos de Erandio son testigos tanto de la memoria histórica como de la historia reciente del último siglo. La peculiar distribución geográfica del municipio, así como la lengua de uso de sus gentes, han tenido una influencia notable en los topónimos de Erandio. Así nos encontramos con topónimos tanto en euskera como en castellano, topónimos que han evolucionado, desaparecido o transformado de forma diferente según la lengua dominante en cada periodo.

En cualquier caso, Erandio tiene una toponimia muy rica que constituye un patrimonio a preservar, puesto que es el testigo más fiel de su historia.

La labor de investigación realizada ha revelado que prácticamente la totalidad de la toponimia histórica del municipio es euskaldun, lo que da a entender, claramente, que Erandio y sus habitantes hablaban mayoritariamente en euskera. Además, por fortuna, se ha podido preservar la toponimia del municipio gracias a que la zona rural es muy extensa, y los caminos de dichas zonas han conservado los nombres de los caseríos. Sin embargo, la convivencia entre el euskera y el castellano ha tenido un impacto directo también en la toponimia, y muchos nombres originales han variado o se han desfigurado como consecuencia de esa interacción entre ambas lenguas, fenómeno que, dicho sea de paso, es totalmente normal entre lenguas que se encuentran en contacto.

Los cambios sociales acontecidos durante el último siglo han hecho que el castellano se imponga en amplias zonas de Erandio, y esa situación ha tenido visibles consecuencias en la toponimia. Los topónimos no-vascófonos aparecen, sobre todo, en los barrios de Astrabudua y Altzaga, todos ellos en

# Toponimia de Erandio a lo largo de la historia



zabaldua dago inguruko herrietan ere, Txorierrin eta Uribe Kostan bereziki. Gaztelaniaren eragin-nezko fenomenoa da amaieran –s pluralgilea sartzea, eta beraz, ahozko erabileran ere baztertu beharreko joera dugu.

## Erandioko etxaldeak mendez mende

Pentsa daiteke Erandio sano aldatuta dagoela industrializazioaren ondorioz; baina, egia esateko, aldaketa handienak Altzaga eta Astrabudua auzoetan gertatu ziren; horrela, gainerako auzoetan aldaketa nabarmen gutxi izan da. Horren erakusle da, XVII. mende amaieran Erandion zeuden etxalde gehienak, gaur egun ere zutunik jarraitzea.

Inguruko herrietan ez bezala, Euskal Herrian etxaldee<sup>1</sup> edo baserriei izena eman izan zaie, eta ematen diegu oraindik ere. Etxeak Euskal Herrian aparteko garrantzia izan du, etxaldearekin lotura estua izan dugu beti Euskal Herriko bizilagunok; horrela, etxeek eman dizkigute euskal herritar askori abizenak. Horren erakusle ditugu, Erandioko zenbait abizen ezagun: Martiartu, Aio, Arondo, Liboa, Trabudua, Altzaga, Mota, Askorra, Astika eta abar.

Hori dela eta, etxalde-izenak dira toponimia lanetan interes handiena pizten dutenak, gure arbaso eta historiaren berri ematen baitigute.

---

<sup>1</sup> Erandioko euskaraz etxalde esaten zaio eraikinari berari eta inguruari; eta baso edo landa gune zabalari baserri esaten zaio.

el siglo XX. La influencia del castellano es también manifiesta en cantidad de topónimos vascos. La -s del plural que se agrega en los nombres de barrio o conjuntos de caseríos (*Alzagas*, *Arriagas*, etc.) es la muestra más evidente de lo dicho anteriormente. Este fenómeno está muy extendido también en los municipios contiguos, especialmente en el valle del Txorierri y en Uribe Kosta. La inclusión de la -s pluralizadora es un fenómeno propiciado por la lengua castellana, que no responde a una evolución propia de los nombres de lugar originariamente en euskera por lo que es una forma incorrecta que no se debería utilizar, tampoco en el uso oral.

## Los caseríos de Erandio a lo largo de los siglos

Erandio ha cambiado mucho a consecuencia de la industrialización, pero a decir verdad, los cambios más relevantes sucedieron en los barrios de Altzaga y Astrabudua; así, en los demás barrios de Erandio han ocurrido muy pocas transformaciones reseñables. Prueba de ello es que muchos de los caseríos que ya existían a finales del siglo XVII hoy día sigan en pie. Al contrario que en otras zonas, en Euskal Herria siempre ha existido la costumbre de ponerle nombre a los caseríos<sup>1</sup>, costumbre que perdura todavía. La casa ha tenido una gran importancia y sus habitantes han estado íntimamente ligados a ella. Así, los nombres de las casas se han convertido en apellidos, como es el caso de apellidos tan conocidos en Erandio como Martiartu, Aio, Arondo, Liboa,

<sup>1</sup> En el euskera de Erandio, se denomina *etxalde* tanto al edificio de la casa como a su entorno, mientras que se utiliza la palabra *baserri* para nombrar el bosque o la zona amplia de terreno alrededor del caserío.





Hona hemen Erandioko etxalde-izenen ezaugarri nagusiak:

Erandioko etxalde-izen gehienak, zaharrenak batez ere, baserria bera izendatzeko sortutako izenak dira; arestian ikusi dugun bezala baserri izeenetik sortu dira hainbat deitura ezagun. Hala ere, badira berriagoak ere, jabearren abizenetik hartu dutenak izena.

Etxaldeak, gehienetan taldeka antolatzen dira, eta gutxi dira bakarrik izendatzen direnak. Horrela asko eta asko baserri multzoak izanik, euren artean bereizteko kokalekua edo etxearen izena adierazten duen hitza gehitu ohi zaio.

□ **atzekoa edo ostekoa** (askotan forma biak txandakatu izan dira, atzekoa zaharragoa izanik, ostekoa, osteikoa, ostaikoa edo osteinkoa bezalako formak txandakatuz joan dira): **Astikaosteikoa, Agirreostekoa, Araukoatzekoa.**

□ **aurrekoa eta erdikoa: Astikaurrekoa eta Astikaerdikoa.**

□ **goikoa edo goitia, beaskoa edo bekoa: Martiartugoitia, Beitigoikoa eta Beitibekoa, Askorbeaskoak.**

□ **barria edo etxebarria, zarra edo etxezarra: Basagoiti(zarra) eta Basagoitibarri, Pinuzarra eta Pinubarri.**

□ **txikerra edo nagusia: Mugaburutxikerra eta Mugaburu, Uribarri(nagusia).**

Beste zenbaitetan bizilagunak berak ematen dio izena etxeari; horrela, Bizkaia mendebaldean ohikoak dira -ena, ahoz -ne, amaieradun etxe-izenak. Amaierako atzizki honek jabetesuna adierazten du, noren deklinabide kasuaren markatik eratorria baita, eta aurretek jabea edo bizilagunaren izena, abizena, ezizena edo lanbidea joan ohi da. Era honetakoak ditugu **Barberuena** (Arriaga), barbero lanbidea zuen batena zela adierazten digu. **Lukiena** (Lukine) eta **Alkonena** (Alkone) desagertutako edo desagertzear dauden Astrabuduko baserri-izenak, **Lukia** eta **Alkon** ezizeneko jabeena zirela adierazten dute. **Txikoena** (Txikone) Arriagan Txiko ezizenetik eratorria. **Domekena** eta **Felipena**, Domentxaka eta Felipe izizeneko jabea edo bizilagunei zor dietenaz izena. **Mentxakena** edo **Uribena** (Uribene), Mentxaka eta Uribe abizenetatik eratorriak, hurrenez hurren.

Trabudua, Altzaga, Mota, Askorra, Astika... Son los elementos que despiertan mayor interés en los trabajos toponímicos, al constituir el legado de la historia de nuestros antepasados.

Características principales de los nombres de los caseríos de Erandio:

La mayor parte de los nombres, sobre todo los más antiguos, son denominaciones acuñadas para nombrar al propio caserío; tal y como hemos mencionado con anterioridad, varios apellidos conocidos provienen del nombre del caserío. En cualquier caso, también existen nombres más recientes de caseríos que han tomado el nombre del apellido de su propietario.

Habitualmente los caseríos se encuentran agrupados y reciben una denominación común. Son pocos los que responden a una denominación en solitario. Al nombre del conjunto se le suele añadir un sufijo o una palabra para designar específicamente cada casa.

□ *atzekoa* u *ostekoa*, para denominar los que se encuentran detrás del principal (es muy común la alternancia entre estas dos formas, siendo *atzekoa* la más antigua; en lugar de *ostekoa*, a menudo aparecen las formas *osteikoa*, *ostaikoa* u *osteinkoa*), **Astikaosteikoa**, **Agirreostekoa**, **Araukoatzekoa**.

□ *aurrekhoa* y *erdikoa*, denominando a los de delante o en medio: **Astikaurrekoa** y **Astikaerdikoa**.

□ *goikoa* o *goitia* y *beaskoa* o *bekoa*, para *los de arriba* o *abajo*: **Martiartugoitia**, **Beitigoikoa**, **Beitibekoa**, **Askorbeaskoa**.

□ *barria* o *etxebarria* y *zarra* o *etxezarra*, para *los nuevos* o *viejos*: **Basagoiti(zarra)** y **Basagoitibarri**, **Pinuzarra** y **Pinubarri**.

□ *txikerra* y *nagusia*, denominando al menor, por un lado, o al principal, por el otro: **Mugaburu-  
txikerra** y **Mugaburu, Uribarri(nagusia)**.

En otros casos, la denominación de la casa proviene del nombre del morador. En la parte occidental de Bizkaia son muy comunes los nombres de casas terminados en -ena, (en su forma oral, -ne). Ese sufijo indica pertenencia puesto que se deriva del caso genitivo en euskera (*noren*), precedido por el nombre, apellido, sobrenombre u oficio de la persona propietaria o del morador. Ejemplo de ello es **Barberuena**, nombre que nos indica que allí vivía una persona de profesión barbero. **Lukie-**





## Erandio Herria

Erandio izenaren jatorria azaltzeko etimo argirik ez dago. Batzuen ustez "ibar handia" (bega+handia) esanahia du. Beste batzuek, ordea, "aranondo handi" etimoaaz hitz egiten dute, baina ez dirudite, ez batak ez besteak, oso ulergarriak linguistikaren ikusmol-detik.

Ikerketa honetarako jasotako dokumentazio zaharrenetik *Herandio* formaz dokumentatu dugu, hasierako "h" grafiaduna alegia. XV. mendetik Lope García de Salazarren *Las Bienandanzas y Fortunas* izeneko lanean hasi eta XVIII. mendera arteko dokumentazioan *Herandio* da dokumentatzen den ia bakarra, salbuespena 1621eko dokumentu batean jaso dugu. XVIII. mendean, 1722an hain zuzen ere, dokumentatzen da Erandio h-rik gabe, handik aurrera sarriago (1730, 1743 eta 1752), eta XVIII. mende amaieratik aurrera gero eta sarriago, Erandio h-rik gabe nagusitzen hasten da orduan. Badi-rudi, Er- hasieradun toponimoetan ohitura izan dela hasieran h- eranstea: hermita, hernani, Hernio, Hermua bezalako formak oso normalak izan dira.

**na** (*Lukine*) y **Alkonena** (*Alkone*) son los nombres de dos caseríos de Astrabudua ya desaparecidos o apunto de desaparecer, que nos dan a entender que sus dueños eran personas de apodo *Lukia* y *Alkon*. **Txikoena** (*Txikone*) es el nombre de un caserío de Arriaga derivado del sobrenombre *Txiko*. Los caseríos **Domekena** y **Felipena**, deben su denominación al nombre de sus propietarios o moradores, *Domeka* y *Felipe*, respectivamente. Por último, **Mentxakena** (*Mentxakane*) y **Uribena** (*Uribene*), provienen de los apellidos *Mentxaka* y *Uribe*.

## El municipio de Erandio

No existe un étimo claro para explicar el origen del topónimo Erandio. De hecho, en opinión de algunos autores, significa "ibar handia" (vega + grande, extensa). Otros autores, en cambio, hablan del étimo "aranondo handi" (ciruelo + grande), pero ninguno de esos dos significados tiene una base lingüística demostrable.

En los textos más antiguos examinados para este trabajo de investigación hemos documentado la grafía Herandio, con "h" inicial. Desde el siglo XV, comenzando por el trabajo de Lope García de Salazar *Las Bienandanzas y Fortunas* y hasta el siglo XVIII, *Herandio* es prácticamente la única forma que aparece en la documentación analizada; la única excepción se ha documentado en un escrito de 1621. En el siglo XVIII, en concreto en el año 1722, aparece la forma Erandio sin "h", y a partir de entonces aparece en varias ocasiones más (1730, 1743 y 1752). Ya a partir de finales del siglo XVIII aparece más profusamente, y la grafía sin "h" comienza a ser la predominante. En cualquier caso, parece que ha sido una costumbre común añadir la "h" a los topónimos que comienzan por Er-: hermita, Hernani, Hernio, Hermua...



# Erandioko leku-izenak auzoz auzo





Los barrios  
de Erandio  
y sus  
topónimos

Erandio ofizialki zazpi biztanle-entitatem dago banatuta: **Altzaga, Arriaga, Astrabudua, Asua-Lauroeta, Erandiogoikoa, Goierri eta Lutxana-Enekuri.**

Hala ere, Erandion badira beste auzo historiko garrantzitsu batzuk, txikia-goak badira ere, ezin ditugunak aipatu gabe utzi: **Martiartu, Santimami eta Faoeta**, adibidez.

Auzo izenen erabilera ez-zuzena aspaldiko ardura da erandioztaurrentzako, 1923ko dokumentu batek agerian uzten duen bezala. Idazkia Erandioko zinegotzi batzuek bidali zioten Bizkaiko Foru Aldundiari, herriko zenbait auzoren izen tradizionala berreskuratzeko baimena eskatzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak, osteria, izen berriak jo zituen tradizionaltzat eta ez zuen eskaera onartu.

Diputazioari baimena eskatu zitzaison, eta horra hor Diputazioaren erantzuna:

Oficialmente, el municipio de Erandio está compuesto por siete entidades de población: **Altzaga, Arriaga, Astrabudua, Asua-Lauroeta, Erandiogoikoa, Goierri y Lutxana-Enekuri.** En cualquier caso, existen en Erandio otros barrios de relevancia histórica, que aún siendo menos importantes que los anteriores, no podemos dejar de mencionar: **Martiartu, Santimami y Faoeta**, entre otros.

El uso incorrecto del nombre de los barrios del municipio ha sido motivo de preocupación desde antaño para los habitantes de Erandio, tal y como lo refleja un documento datado en 1923. El escrito en cuestión fue remitido por varios concejales municipales a la Diputación Foral de Bizkaia, al objeto de solicitar permiso para la recuperación del nombre tradicional de diversos barrios del municipio. La Diputación Foral de Bizkaia, en cambio, tomó por tradicionales los nombres más recientes y no aceptó la petición.

Como se ha dicho anteriormente, se solicitó autorización a la Diputación y el ente foral respondió de la siguiente manera:

*Al Ayuntamiento de la Anteiglesia de Erandio*

*Los que suscriben Concejales de este Ayuntamiento, tienen el honor de proponer, a la consideración del mismo la siguiente moción:*

.....  
*Con pena, y lamentándolo mucho, vemos que existen barrios en esta Anteiglesia, como el de La Campa, Desierto y Luchana cuyos nombres, están en completa disonancia con las épocas en las que esos barrios se formaron, y por lo tanto, a nuestro entender, se impone que estudiando este asunto que es como nombre de pila y por lo tanto respetable, se cambien esos que pudiéramos llamar motes ó sobrenombres por los que en realidad les corresponda.*

*Y sin más exposiciones proponemos a la consideración de ese Ilustre Ayuntamiento el siguiente proyecto de acuerdo:*

*1º. Rogar a la Exma. Diputación Provincial modifique de acuerdo con la toponimia los nombres de los Barrios del Desierto, La Campa y Luchana.*

.....  
*Erandio, 27 de Febrero de 1923*

*M. de Aranegui*

*G. Arieta-araunabeña*

*Dada cuenta en sesión de 2 de Marzo de 1923*

*La Excma. Diputación en sesión celebrada con fecha 30 del pasado Noviembre acordó aprobar un voto particular del Diputado D. Lorenzo Hurtado de Saracho por el que propone desestimarse la petición de ese Ayuntamiento de que sean cambiados los nombres de “Desierto” “Luchana” y “La Campa” por los de “Alzaga” “Ikoeta” y “Landa” respectivamente por tratarse de nombres ya tradicionales. (1923, Bizkaiko Foru Agiritegia, ER313/044).*

## ALTZAGA (DESERTU, ERANDIOBEKOA)

Auzoaren egungo izen ofiziala **Altzaga** da. Altzaga izena auzoko etxalde eta etxalde-multzo batetik dator, hain zuzen ere oraindik bertan diren **Altzagagoikoetxea** (Goikoetxe), **Altzagabeaskoetxea** (Beaskoetxe, Bizkotxe), **Altzagurrekoetxea** (Aurrekoetxe, Antonena), **Altzaetaetxebarria** (Etxebarri) eta **Altzaga (Palazio)**. Dokumentatu dugunez, 1697. urtean jadanik Altzaga forma erabili zen auzoa izendatzeko. Izenak etimología argia du: hultz zuhaitz izena (*Alnus glutinosa*) eta -aga atzikiaz eratorritako izena da. Amaierako -aga formak ugaritasuna adierazten du, asko alegia, eta maiz zuhaitz eta landara izenekin erabiltzen da.

Askok *Desertu* izenaz ezagutzen badute ere, izen hau, Erandion beste izen asko bezala, nahiko berria da, XIX. mende bukaerakoa hain zuzen ere. Sestaoko San Nikolas kaia sortu zenean, *Desertu* izena hartu zuen, berrian zeuden karmeliten eraikinagatik. Karmeliten artean ohikoa zen bezala eraikin honi "desierto" esaten zioten. "Desierto de San Nikolas", ondorioz, kaiari, eta gerora ibaia igaro eta Erandioko auzo hau izendatzeko ere erabiltzen hasi zen. Lehenengoz 1892an dokumentatzen dugu, hala ere bi

Hoy en día, la denominación oficial del barrio es **Altzaga**. El nombre Altzaga proviene del caserío y conjunto de caseríos que aún permanecen en pie: **Altzagagoikoetxea (Goikoetxe)**, **Altzagabeaskoetxea (Beaskoetxe, Bizkotxe)**, **Altzagurrekoetxea (Aurrekoetxe, Antonena)**, **Altzaetaetxebarria (Etxebarri)** y **Palazio (Altzaga)**. En cualquier caso, el nombre Altzaga ya se utilizaba en el año 1697 para denominar el barrio.

La etimología del nombre es clara: es una denominación derivada del nombre en euskera del árbol aliso (hultz, *Alnus glutinosa*) y el sufijo -aga. El sufijo -aga indica abundancia o cantidad considerable y se usa frecuentemente asociado a nombres de árboles o plantas.

Aunque mucha gente conoce el barrio por el nombre de *Desierto* esa denominación es bastante reciente. En concreto, el nombre *Desierto* aparece a finales del siglo XIX. Adoptó esta denominación cuando se construyó el muelle de San Nicolás de Sestao, por el edificio de la congregación carmelita ubicada en aquella zona. Era usual en esta congregación llamar "desierto" a dicho edificio. Como consecuencia de ello, se extendió



ALTZAGA (PALAZIOA)



HALTZ-ENBORRAK / TRONCOS DE ALISO

el nombre "Desierto de San Nicolás" para denominar la zona del muelle, y posteriormente comenzó a utilizarse para designar este barrio de Erandio al otro lado de la ría. Se encuentra documentado por primera vez en el año 1892, pero en el testimonio se recogen los dos nombres. Puede pensarse, por tanto, que los nombres Desierto y Altzaga se utilizaban para denominar sitios diferentes.

Actualmente se viene empleando el nombre **Erandiobekoa** para denominar el barrio, en contraposición a **Erandiogoikoa**.

El barrio Altzaga fue mayormente una gran vega, de la que provienen nombres como **Altzagako ibarra** (Vega de Altzaga) o **Ibarrondo**. Por otra parte, hay que decir que la población se asentaba alrededor del caserío Altzaga (Palacio). El barrio se ha ensanchado a finales del siglo XIX y a lo largo del XX.

Existen, además, algunos topónimos antiguos que han desaparecido debido a la transformación urbanística que ha experimentado el barrio. Así, pocos habitantes recuerdan que la campa trasera a la iglesia de San Agustín se llamaba **Altoaga**.

La mayoría de la toponimia no-vascófona del barrio de Altzaga tiene relación con el proceso de industrialización y el desarrollo económico: por ejemplo, **Campa de los Bueyes**. Así, cuando los buques atracaban en el puerto de Erandio, se dejaban los bueyes que utilizaban para las labores de carga pastando en la campa contigua, y de ahí deriva el nombre; **Campa del Machaqueo**, campa en la cual se desmenuzaban o "machacaban" los bloques de piedra, o **Campa de la Goma** en Lutxana.

izenak jasotzen dira, eta Desertu eta Altzaga leku edo gune ezberdinak izendatzeko erabiltzen zirela pentsa liteke.

Azkenaldian, gainera, **Erandiobekoa** izena ere eman zaio auzo honi, **Erandiogoikoa** auzoaren antonimo gisa.

Altzaga auzoa nagusiki ibar handi bat izan zen, hortik **Altzagako ibarra** eta **Ibarrondo** bezalako toponimoen jatorria, eta bizigunea egungo Altzaga baserri-gunean baino ez zegoen. XIX. mende amaieran eta XX. mendean handitu da auzoa.

Badira baita, toponimo zaharrak auzoak jasan duen hiri-aldaketagatik zoritzarrez desagertu direnak. Horrela, gutxik gogoratzen dute San Agustin elizaren atzeko zelaiai **Altoaga** esaten zitzaiola.


Altzaga auzoko erdal toponimia gehienak industrializazioarekin eta garapen ekonomikoarekin dauka lotura: **Campa de los Bueyes** esaterako, itsasontziak Erandioko portuan porturatzen zirenean, bertan zeramatzen kargarako idiak ondoko zelaian uzten zituzten bazkatzen, eta hortik izena; **Campa del Machaqueo**, zeinetan harri handiak txikitzen edo "matxakatzen" ziren, edota Lutxanako **Campa de la Goma** bezalako toponimoak.

Lehen aipatutakoez gain hortxe ditugu: **Campa Chin**, Tartanga inguruko zelai bati esaten zaio; **Bolera**, Tartanga auzoan hau ere; **Cuesta de los ladrones**, Altzagatik Arriagara doan aldats luze eta zailari esaten zaio (Beaskoetxe-Arriaga bideari hain zuzen ere); **Hotel Orejas**, gaur egungo udaletxe atzean astoak lotzeko zegoen guneari esaten zitzzion, lekuaren erabilera oso loturik dago izenarekin, astoen belarri handiei egiten baitio erreferentzia. Esanak esan, Altzagako toponimorik gehienak euskaldunak dira.


Además de los anteriores, mencionaremos los siguientes: se denomina **Campa Chin** a una campa situada alrededor de Tartanga; **Bolera** se encuentra asimismo en Tartanga; se llama **Cuesta de los ladrones** a la pendiente prolongada y fatigosa que sube desde Altzaga hasta Arriaga (en concreto, al camino Beaskoetxe-Arriaga); se denominaba **Hotel Orejas** al espacio situado en la trasera del actual ayuntamiento, utilizado en otro tiempo para amarrar los burros y que hace clara referencia a las orejas de los asnos.

En cualquier caso, la mayoría de los topónimos del barrio de Altzaga son de origen euskaldun.

HALTZ-OSTOAK / HOJAS DE ALISO



## Beaskoetxe (*Bizkotxe, Bekoetxe*)



BEASKOETXE-ARRIAGA BIDEA

*"Bizkotxe"* ahozatzen duguna da Altzaga auzoko toponimorik ezagunetakoia. **Altzagabeaskoetxea** du jatorrizko izen osoa eta **Beaskoetxe** edo **Bekoetxe** ere esan izan zaio. Etxe izen honetatik eratorri dira beste hainbat leku izen, bidearen izena estate baterako, **Beaskoetxebidea** (**Bekoetxeko bidea**), bai eta iturriarena **Beaskoetxeko iturria**.

El topónimo más conocido del barrio de Altzaga es **Beaskoetxe** (*Bizkotxe*), o más exactamente **Altzagabeaskoetxea**, puesto que ese es el nombre original completo. También se le llama **Bekoetxe**, siendo ésta una alternancia muy común en euskera. De ese oicónimo o nombre de casa se han derivado posteriormente otros topónimos, como por ejemplo, el que da nombre al camino **Beaskoetxebidea**, o la **fuente de Beaskoetxe**.

## Tartanga

Jatorrian, etxalde baten izena da Tartanga eta gerora, auzoa bera izendatzeko erabili da; ez da, beraz, auzo izen zaharra. Etimo ilunekoa da, baliteke ezizen batetik eratorria izatea.

En sus orígenes, Tartanga fue el nombre de un caserío, y posteriormente se utilizó para nombrar el barrio; no es, por lo tanto, la denominación antigua del barrio. Se trata de un étimo de procedencia incierta, posiblemente derivado de un apodo o sobrenombre.



## Altzagako etxaldeak mendez mende Caseríos de Altzaga a lo largo de los siglos

XVII. MENDEKO ETA LEHENAGOKO ETXEAK	XVIII. MENDEKO ETXEAK	XIX. MENDEKO ETXEAK	XX. MENDEKO ETXEAK
CASAS DEL SIGLO XVII Y ANTERIORES	CASAS DEL SIGLO XVIII	CASAS DEL SIGLO XIX	CASAS DEL SIGLO XX
Altzaga (Palazio)	Pagoeta	Artetxueta *	Aldapabarren
Altzagaetxebarria	Punta *	Atxondo *	Casas Baratas
Altzagurrekoetxea (Antonena)	Tartanga *	Maltertzio (Puntaetxebarria) *	Las Delicias
Beaskoetxe ( <i>Bizkotxe</i> ) *		Pasteleria *	
Goikoetxe (Altzagagoikoetxea)			



ALTZAGA ETXE MULTZOA / GRUPO DE CASAS ALTZAGA

## ARRIAGA

Euskaraz, ahoz, Arrea esaten diote. Beste hainbat toponimotan gertatu bezala (*Arana*<*Aranaga*, edota *Madaria*<*Madariaga*) amaierako –aga –a baino ez da ahoskatzen. Gainera, erdaraz ari direnean *Arriagas*, gaztelaniaren amaierako –s pluralgilea gehituta; baina amaierako –s hori inguru honetan ohikoa bada ere, erabat okerra da ahozko nahiz idatzizko erabilera.

Arriaga izena 1653tik dokumentatu dugu, eta izen horrekin auzoa baino ez da izendatzen, ez baitugu izen horrekin etxerik dokumentatu. Beraz pentsatzeko da izena bera auzoa izendatzeko sortu zela. Esanahiari begiratuta harri + –aga ugaritasuna adierazten duen atzikiaz eratorritako izena da, harri asko dagoen tokia, alegría.

Auzo honetako baserri zahar gehienek zutik diraute, eta Altzagatik hurbil dagoen arren, aldaketa gutxi izan ditu auzoak.

La forma oral en euskera es *Arrea*. Como sucede en otros muchos topónimos (*Arana*<*Aranaga*, o *Madaria*<*Madariaga*), sólo se pronuncia la –a final del sufijo –aga. Además, hablando en castellano se suele añadir al final la marca pluralizada –s, convirtiéndose en *Arriagas*; en cualquier caso, aunque el uso de la –s final sea común en esta zona, debemos decir que se trata de una forma incorrecta, tanto en la utilización oral como escrita.

El nombre Arriaga sólo se utiliza para denominar al barrio y lo hemos documentado desde el año 1653, lo que nos da una idea de la antigüedad del barrio. En cuanto al significado, proviene del nombre *harri* (piedra) + –aga (sufijo para denotar abundancia o copiosidad), por lo que expresa un sitio en el que existen abundantes piedras.

La mayoría de los antiguos caseríos de Arriaga siguen en pie hoy en día, y aunque se encuentra relativamente cercano a Altzaga, el barrio apenas ha sufrido modificaciones.

## Altzagena (*Altzane*)

Ahoz *Alzane* edo *Altzane* izenaz ezaguna den baserri honen idatzizko forma egokia **Altzagena** da. Jatorrian baserri honek **Markatalai** izena zuen, eta horrela jasotzen da hainbat dokumentu eta eskritura zaharretan. XVIII. mende amaieran dokumentatzen da lehenengoz Altzagena izenarekin. XVIII. mendean zehar izena ordezkatu zuen, eta Altzaga abizena + -ena genitibo atzizkiaz eratutako forma hartuko zuen. XIX. mendera arte bi izenak txandakatzen ziren, hurrean. Gaur egun baserriak *Altzagagane* izena dauka errrotulatuta, baina forma hori ez da inon ere jaso, bai ordea Altzagena. Bokalarteko <g> galteza ahoskeran normala da eta hortik, *Altzane* edo *Alzane* formak.



La forma escrita correcta del caserío que se conoce oralmente como *Alzane* o *Altzane* es **Altzagena**. En origen, ese caserío tenía por nombre **Markatalai**, y así se recoge en varios documentos y escrituras antiguas. Es a finales del siglo XVIII cuando se documenta por primera vez con el nombre Altzagena. Así, reemplazó su nombre anterior durante el siglo XVIII y adoptó la forma compuesta por el apellido Altzaga y el sufijo genitivo -ena. Hasta el siglo XIX los dos nombres se alternaron indistintamente. En cualquier caso, la forma Altzagena es la que prevalece hoy en día. El caserío tiene rotulado el nombre *Altzagagane*, pero esa denominación no está documentada. Las formas orales *Altzane* o *Alzane* son consecuencia de la pérdida de la <g> intervocálica frecuente en el uso oral del idioma.

## Txikoena (Urrestibekoa)

Baserri honen jatorrizko forma **Urrestibekoa** da, Urresti baserri multzoko baseria dugu beraz. Baino, gaur egun **Txikoena** (*Txikone*) izenaz ezagutzen dugu. XX. mendean hartu zuen izen berria.

La denominación original de este caserío es **Urrestibekoa** y, por tanto, se trata de un caserío perteneciente al conjunto de Urresti. Hoy en día, sin embargo, se conoce por el nombre **Txikoena** (*Txikone*). Adquirió esa nueva denominación a lo largo del siglo XX.



## Goskoetxe (*Koskoletxe*)

Etxaldeak duen errotuan 1727an eraikia dela dio. Hala ere, 1745ean eta 1796an egindako sutegi-erroldetan ez da ageri. Dokumentazio zaharrean *Goscoechea* forma ageri da (1799. urtean), ziurrenik Goxeaskoa bezalako forma zaharretik datorrena, baina ezin da ziurtatu.

Hasierako <g> <k> bihurtu zen, gortze prozesuaren ondorioz (goilara>koilara hitzean bezala) eta "Koskoletze" ahoskatzen da eta baita dokumentatu ere. Nolanahi ere, **Goskoetxe** da Euskaltzaindia-ren iritziz idatzizko forma egokia.



En el rótulo que aparece en el caserío reza que se construyó en 1727. Sin embargo, no aparece en las fogueraciones o recuentos de fogueras realizados en 1745 y 1796. La primera referencia escrita que encontramos es del año 1799 con la forma *Goscoechea*, seguramente derivada de la forma antigua *Goxeaskoa*, pero no podemos confirmar ese último término. Posteriormente se documenta la forma "*Koskoletze*" donde la <g> inicial se ha transformado en <k>, como consecuencia del fenómeno de oclusión. En cualquier caso, según Euskaltzaindia, la forma escrita correcta es **Goskoetxe**.

## Irubideta



Bada Arriagan desagertutako izen bat, berreskuratu beharko litzatekeena eta dagoeneko herritarren memoriatik desagertu dena. Hain zuzen ere Artetxe baserriaren aurreko bidegurutzeari **Irubideta** esaten zitzaion 1890eko dokumentu batek jasotzen duenez. Izenak lekua bera ezin hobeto deskribatzen du, bertan hiru bide gurutzatzen baitira.

En la zona de Arriaga, para describir el cruce ubicado delante del caserío Artetxe, se ha documentado en un texto del año 1890 el topónimo **Irubideta**, ya desparecido y olvidado en la memoria de la gente, pero que a nuestro juicio debería recuperarse. Dicho nombre describe de manera inmejorable el sitio, puesto que en él se encuentra el cruce de tres caminos.

## Gallarraga

Altzaga Ikastola dagoen mendiaren jatorrizko izena **Gallarraga** da, gaur egun **Kukularra** esaten badiogu ere. Kukularra bertan zegoen etxearren eta belardiaren izena da, ez mendiarena. Gallarraga toponimoa XVIII. mendeaz geroztik ugari dokumentatu da; zoritzarrezz, gaur egun hiztunen memoriatik desagertzen ari da.

El nombre original del monte donde hoy se ubica la ikastola Altzaga es **Gallarraga**, aunque actualmente se denomina comúnmente **Kukularra**. Kukularra es el nombre de la casa que se encontraba en ese lugar y del prado contiguo, pero no del monte. El topónimo Gallarraga está documentado profusamente desde el siglo XVIII, aunque, por desgracia, ha caído en desuso.



## Arriagako etxaldeak mendez mende Caseríos de Arriaga a lo largo de los siglos

XVII. MENDEKO ETA LEHENAGOKO ETXEAK		XVIII. MENDEKO ETXEAK	
CASAS DEL SIGLO XVII Y ANTERIORES		CASAS DEL SIGLO XVIII	
Agirre	Beitigoikoa *	Alkaidena ( <i>Alkañe</i> )	
Agirretxu *	Iturralte	Araukoatzekoa *	
Altzagena (Markatalai) ( <i>Altzane</i> )	Leioena *	Erregena	
Aranaga ( <i>Arane</i> )	Mugaburu ( <i>Muguru</i> )	Gallarraga *	
Aranagatxu * ( <i>Aranatxu</i> )	Mugaburutxikerra	Goskoetxe ( <i>Koskoletxe</i> )	
Araukourrekoa *	Pasajebarria *	Mugaburuauurrekoa *	
Araukotorre *	Rodrigena *	Santxetxebekoa *	
Argiñena ( <i>Argiñe</i> )	Santxetxe(goikoa) *	Txantelena (Laueta) ( <i>Txantelene</i> )	
Argiñenagoikoa *	Txertudi *		
Arribeiti (Arrigoiti) ( <i>Arribiti</i> )	Txikoena (Urrestibekoa) ( <i>Txikone</i> )		
Arribetizarra	Ugartetxе		
Artetxe	Urrestiburu (Urrestitxu, Urrestigoikoa)		
Barberuena * (Araukoerdikoa)	Urrestierdikoa *		
Basarrate ( <i>Basarte</i> )			
Basarrategoikoa *			
Basazelai ( <i>Basalei</i> )			
Beitibekoa			

## Arriagako etxaldeak mendez mende Caseríos de Arriaga a lo largo de los siglos

### XIX. MENDEKO ETXEAK

#### CASAS DEL SIGLO XIX

Arribetierdikoa  
Kukularra \*  
Mendikoetxe (Andikoetxe)

### XX. MENDEKO ETXEAK

#### CASAS DEL SIGLO XX

Arriagana  
Erdikoetxe  
Goskoetxeaurre  
Ibaigana  
Mendikoetxebarri  
Txakolina  
Txantelenagoikoa  
Txantxienda  
Urrestibarri

## ASTRABUDUA

Astrabudua auzoaren izena **Atxa** eta **Trabudua** toponimoen batuketatik dator. Gaur egun Atxa (Atxes) izenez ezagutzen dugu Axpuru mendiaren magalean kokatutako baserri multzoa. Oraindik bertan irauten dute, besteak beste, aspaldiko etxe batzuek: **Etxezarra**, **Barriena** (*Barrene*) eta **Etxebarria**. **Etxezarra** (*Etxezarre*) baseriaren jatorrizko izena **Atxa** da, **Atxaetxezarra** izena ere hartu zuena etxe berriagoak egin zirenean.

**Atxa** hitza gainera, auzo honetako beste hainbat toponimotan ere ageri da: **Atxabidea**, **Axpuru** baseria eta mendia (atxa eta burua hitzez osatua), **Axpe** (Atxa eta -pe behean esanahia duen atzizkia) Astrabuduko auzo txikia, besteak beste. Hain zuen ere tren geltokiak duela gutxi arte **Axpe** izena zuen.

**Trabudua** ere etxalde baten izena da, eta inguruan zuen etxe-multzoarena: **Trabuduatzikerra**, **Trabuduurrekoa** edo **Lukiena** (*Lukine*) eta **Trabudualkonena** (*Trabuduerdikoa*) edo **Alkonena** (*Alkone*).

Auzoa bera izendatzeko **Astrabudua** izena lehenengoz udal agiritegiko 1808ko dokumentu batean erabiltzen da. Aurretik Trabudua edo Atxa eta Trabudua izena agertzen dira.

El nombre de Astrabudua proviene de la composición de los topónimos **Atxa** y **Trabudua**. Hoy en día se denomina Atxa, o Atxes de forma oral, al conjunto de caseríos situados en la ladera del monte Axpuru. Algunos caseríos que han perdurado hasta nuestros días pertenecieron antaño a ese conjunto de caseríos: **Etxezarra** denominado antiguamente **Atxa** (*Etxezarre*), **Barriena** (*Barrene*) y **Etxebarria**.

La palabra **Atxa** aparece, además, en otros topónimos de este barrio: el camino **Atxabidea**, el caserío y el monte **Axpuru** (compuesto por las palabras en euskera *atxa* y *burua*), o **Axpe** (derivado de la unión de la palabra *atxa* y el sufijo -pe, que significa "debajo de"), un barrio menor de Astrabudua. Precisamente, la estación de tren se denominaba **Axpe**.

El nombre **Trabudua** corresponde también a un caserío, así como al conjunto de casas de su entorno: **Trabudua**, **Trabuduatzikerra**, **Trabuduurrekoa** o **Lukiena** (*Lukine*) y **Trabudualkonena** (*Trabuduerdikoa*) o **Alkonena** (*Alkone*). El nombre **Astrabudua** se encuentra recogido en un documento del archivo municipal fechado en 1808, utilizado por primera vez para designar



ETXEZARRA

Baserri-auzo izatetik, Erandioko biztanlerik gehien duen auzoa izatera pasatu da. Horrela, gaur egun baserri gutxik irauten du zutunik; baina, zorionez, baserri horien izenak bizi-bizirik daude kale-izendegian gorde direlako. Toponimo horiek kale-izenetan gordetzeaz gain, kale egokietan gordetzen dira; izan ere, eraikina zegoen, edo orandik dagoen, lekuaren inguruko kaleak darama etxaldearen izena: **Alkonena** (*Alkone*), **Trabudualkonena** baserriagatik, **Juanena** (*Juanene*), izen bereko baserriagatik, **Iturribengoa** (*Iturrimingo*), izen bereko iturriagatik, **Kintoena** (*Kintone*), izen bereko baserriagatik, **Oleaga** (*Ollaga*), Oleaga izeneko etxalde-multzoagatik (dokumentazioaren arabera bi zeuden **Oleagagoikoa** eta **Oleagabekoa**), **Txakurzulo** bidea, Txakurzulo izeneko XIX. mendeko etxeari erreferentzia eginez, Astrabudua eta Leioako mugan zegoena, dagoeneko desagertua. **Atxape** kaleak ere izen bereko baserri desagertuari zor dio izena; eta **Madaripebideak**, bestalde, inguruko madariondoe. Astrabudua izenaren amaierako -a artikulua da, ez da berezkoa. Horrek zera esan nahi du deklinaterakoan galdu egiten dela eta beraz **Astrabuduko**, **Astrabudutik**, **Astrabudura** bezalako formak erabili behar ditugula. Non kasuan, ostera, **Astrabuduan** esan behar da.

el barrio. Anteriormente, aparecen los nombres Trabudua simplemente o Atxa y Trabudua.

De ser un barrio principalmente compuesto por caseríos, se ha convertido en el barrio de Eradio que actualmente alberga mayor número de habitantes. Así, hoy en día quedan pocos caseríos en pie de todos los que hubo, pero por fortuna los nombres de esos caseríos siguen vivos porque se han conservado en el callejero. Y además de preservarlos como nombres de calles, se han utilizado en el sitio adecuado, en el lugar más cercano al sitio donde levantaba o se encuentra el edificio en cuestión: **Alkonena** (*Alkone*), en relación al caserío **Trabudualkonena**, **Juanena** (*Juanene*), en relación al caserío del mismo nombre, **Iturribengoa** (*Iturrimingo*), en relación a la fuente homónima, **Kintoena** (*Kintone*), en relación al caserío del mismo nombre, **Oleaga** (*Ollaga*), unida a la casería **Oleaga** (según la documentación analizada, existían dos caseríos, de nombre **Oleagagoikoa** y **Oleagabekoa**), **Txakurzulo** bidea, en referencia a la casa Txakurzulo del siglo XIX, situada en el límite entre Astrabudua y Leioa, hoy desaparecida. La calle **Atxape** debe su nombre al desaparecido caserío del mismo nombre y, por último, **Madaripebidea**, hace referencia a los perales cercanos. La -a final del nombre Astrabudua conforma el artículo y, por tanto, no es orgánica. Eso quiere decir que al declinar el nombre se pierde la vocal y, así, en euskera, deben utilizarse las formas **Astrabuduko**, **Astrabudutik**, **Astrabudura**. En el caso inesivo (dónde), en cambio, debemos decir **Astrabuduan**.



ETXEZARRA

## Axpuru

Badirudi mendiaren jatorrizko izena **Axpe** zela eta buru izena beranduago erantsi zitzaila, tontorra izendatzeko egin ohi den bezala. **Hirugurutzeta** edo **Tres Cruces**, ordea, berriagoa da, eta hala aitortzen dute bertako euskaldun zaharrek; izan ere, izen berri hori bertan eraikitako hiru gurutzei zor zaio. **Goikolarra** ere esaten diote tontor inguruari, izen hori desagertutako etxalde baten izena ere bada, ziurrenik lekuaren izenetik hartuko zuena izena. Nolanahi ere, mendi honen izen jatorria **Axpuru** da.

**Axpuru** baserri zaharra **Axpuru** mendian zeagoen, tontoretik gertu. Karlistadetan liberales lekuaren egokitasunagatik hantxe bertan gotorlekua eraikitza erabaki zuten eta baserria lekuz aldatu zuten. Baserri edo gotorleku zaharraren aztarnak oraindik ikusgai daude.

Gaur egungo **Axpuru** baseriaren eraikina XIX. mende amaierakoa da beraz.



Parece ser que la denominación original del monte era **Axpe**, y que la palabra buru se le añadió posteriormente, tal y como se hace habitualmente para designar la cima. Por contra, la denominación **Hirugurutzeta** o **Tres Cruces**, es más reciente, y así nos lo han corroborado los y las informantes oriundos del lugar. De hecho, el nuevo nombre se debe a las tres cruces construidas en ese paraje. También llaman **Goikolarra** a la zona alrededor de la cima, donde había un caserío, actualmente desaparecido, que tomó el mismo nombre. En cualquier caso, el nombre original del monte es **Axpuru**.


En el monte **Axpuru**, el viejo caserío **Axpuru** estaba cerca de la cima. Pero en las guerras carlistas, los liberales decidieron construir un fuerte allí por la idoneidad del lugar y cambiaron de sitio el caserío. Los restos del viejo caserío o del fuerte aún pueden observarse. El edificio del caserío **Axpuru** actual es de finales del siglo XIX.



AXPURU BASERRIA

# Astrabuduko etxaldeak mendez mende Caseríos de Astrabudua a lo largo de los siglos

XVII. MENDEKO ETA LEHENAGOKO ETXEAK CASAS DEL SIGLO XVII Y ANTERIORES	XVIII. MENDEKO ETXEAK CASAS DEL SIGLO XVIII	XIX. MENDEKO ETXEAK CASAS DEL SIGLO XIX	XX. MENDEKO ETXEAK CASAS DEL SIGLO XX
Alkonena ( <i>Alkone</i> ) Atxaetxebarria * Axpuru (gerora lekuz aldatua / posteriormente cambio de ubicación) Barrankosena * Barriena ( <i>Barrene</i> ) * Barrutieta * Elexazpi * Etxezarra ( <i>Etxezarre</i> ) Goikortu * Goitiko * Lukiena * ( <i>Lukine</i> ) Oleagabekoa * ( <i>Ollagabeko</i> ) Oleagagoikoa * ( <i>Ollagagoiko</i> ) Trabudua *	Kintoena * ( <i>Kintone</i> ) Tranpa (Udondo) *	Askorrena * ( <i>Askorrene</i> ) Atxondo * Axpe * Txakurzulo *	Aurrekoetxe Bistalai Etxederra Juanena * ( <i>Juanene</i> ) Mendiakpi Mentxaka * Oriosolo * Saliturri * Ugartebarri Villa Felisa Villa Llorente



AXPURU

## A S U A

**Asua-Lauroeta** da biztanle entitate honen izen ofiziala. Loiu udalerrian zuen enklabeari egiten dio erreferentzia Lauroetak, baina dagoeneko enklabe hori ez da Erandioko. 1998tik Loiuko udalerriarena da berriro ere.

Txorierri haraneko gune garrantzitsua da **Asua**, bereziki garrantzitsua izan zen garai batean portua zuelako eta harana itsasoarekin lotzen zuelako. Denborarekin baina, Asuko ibaia indarra galduz joan zen, inguruneko industrieik erabat kutsatu eta ura galdu zuen heinean. Gaur egun industria-gune garrantzitsua dugu.

Asua auzo honetan biltzen ziren garai batean Erandioko dorretxerik garrantzitsuenak, besteak beste: **Urazandi, Asuko dorrea, Torrebiarte** edota **Torrezarra. Torreta** auzoaren izenaren etimoak berak, dorretxe asko ze goen lekua esan nahi du.

Izenari dagokionez argitu beharra dago amaierako –a artikula dela, eta beraz, euskaraz deklinaturik eman behar dugunean, -a galdu egiten duela, adibidez: ni *Asukoa naiz, Asura noa* edota *Asutik nator*, baina *Asuan bizi naiz*.

El nombre oficial de esta entidad de población es **Asua-Lauroeta**. El nombre Lauroeta hace referencia al enclave de Eradio en el municipio de Loiu que actualmente no pertenece a Eradio, puesto que desde 1998 forma parte del municipio de Loiu.

**Asua** es un núcleo importante dentro del valle del Txorierri, y lo fue especialmente en otro tiempo porque contaba con un puerto que unía el valle con el mar. Con el transcurso del tiempo, el río Asua perdió peso, debido a la disminución del caudal y a la contaminación producida por la industria instalada en sus márgenes. Hoy en día, Asua es una zona industrial de relevancia.

En otro tiempo las casas-torre más importantes se concentraban en el barrio de Asua, entre otras, **Urazandi, Asuko dorrea, Torrebiarte o Torrezarra**. Son, por lo tanto, étimos del nombre del barrio **Torreta**, nombre que designa un lugar donde hay muchas casas-torre.

En lo que respecta al nombre, hay que apuntar que la –a final es el artículo y, por lo tanto, se pierde al declinar el nombre en euskera, por ejemplo, *Asukoa naiz* (soy de Asua), *Asura noa* (voy a Asua) o *Asutik nator* (vengo de Asua), pero *Asuan bizi naiz* (vivo en Asua).



**TORRETA**

auzunea

URAZANDI

## Leorbaso

Asuko toponimo zaharra, XVII. mendetik dokumentatzen dena. Ezaguna da oraindik ere, tailer baten izena izateaz gain, garai batean Apurtuarte futbol-taldearen zelaia izan zelako 1956. urtera arte. Urte horretan desagertu egin zen, zelaia inguruaren industrializazio garapenaren ondorioz.

Se trata de un topónimo muy antiguo de Asua, documentado ya en el siglo XVII. Hoy en día todavía se conoce, puesto que además de ser el nombre de un taller, en otro tiempo fue el nombre del terreno de juego del club de fútbol Apurtuarte, hasta el año 1956. Ese año desapareció como consecuencia del desarrollo industrial del entorno.

## Katea

**Katea** edo erdaraz **La Cadena** izenaz ezagutzen den gune honek, garai batean bertako pasabidea mozten zuen kate batiz zor dio izena. XIX. mende amaieratik dokumentatzen dugu eta gaur egun **La Cadena** izenaz ezaguna bada ere, euskaldunek **Katea** deitu diote beti. 1885eko dokumentu batean hauxe jaso dugu: "*Cateaco-echevarria-doñabeitia*". 1892an jasotako "*Catea-ondo*" toponimoak ere argi erakusten du garai hartako euskaldunek ere hala esaten ziotela.



El nombre **Katea** o su correspondiente castellano **La Cadena** se debe a una cadena que regulaba el paso por el lugar en otro tiempo. El topónimo está documentado desde finales del siglo XIX, y aunque hoy en día se conoce comúnmente por el nombre de **La Cadena**, los euskaldunes siempre han denominado al lugar **Katea**. Así, en un documento de 1885 se recoge lo siguiente: "*Cateaco-echevarria-doñabeitia*". Por otra parte, el topónimo "*Catea-ondo*", recogido en un documento de 1892, demuestra asimismo que quienes hablaban euskera utilizaban ese nombre para nombrar el lugar.

## Faoeta (*Fano(s)*)

Enekuri ondoko auzo honen euskarazko izena **Faoeta** da, eta horrela erabiltzen dute bertako euskaldun zaharrek euskaraz ari direnean (ahoz *Fáueta* esaten diote). Erdaraz, ordea, **Fano** (*Fanos*) forma zaharragoa erabiltzen da. XVIII. mendeko dokumentuetan ageri zaigu lehenengoz **Faoeta**. Euskarazko forma berandu agertzea normala da, izan ere administrazioak ez baitzuen euskarazko formari erabiltzen ahoz erabilera normaldua izan arren.

Forma bikoitza erabiltzearen arrazoia da bokal arteko -n- kontsonantea galtzea, Galdakao edo Lemoa herri izenetan gertatu bezala, Fao esaten diote euskaraz. Lauro/Lauroeta bikoizketa gertatzen den bezala, hemen Fao/Faoeta izenen alternantzia daukagu. XX. mendean ohikoa izan da leku izenen erdarazko formari amaieran -s gehitzea (Erletxeta<Erletxes), XX. mendeko fenomeno hau, inguru honetan zabaldua dena, ez da batere zuzena ahozko zein idatzizko erabileran.



El nombre en euskeras de este barrio contiguo a Enekuri es **Faoeta**, y así lo utiliza la gente del lugar cuando habla en euskeras (oralmente, dicen *Fáueta*). En castellano se utiliza la forma **Fano** (*Fanos*). **Faoeta** aparece por primera vez en documentos del siglo XVIII. Esta aparición relativamente tardía es normal, puesto que las formas en euskeras apenas se han documentado, aún teniendo una utilización oral normalizada. Por otra parte, históricamente es muy

frecuente en euskeras perder la consonante <n> intervocálica, tal y como ha sucedido en los nombres de los municipios Galdakao o Lemoa. Así, en euskeras denominan **Fao** al barrio. También es frecuente añadir el sufijo -eta al nombre y, sobre todo, alternar el sufijo -eta con el sufijo pluralizante -s en castellano (Erletxeta<Erletxes>). Este fenómeno surgido en el siglo XX y muy extendido en esta zona es del todo incorrecto, tanto en su utilización oral como escrita.

## Kaukoerreka (*Kaukarraka*)

Toponimo hau Faoeta auzoko bide bat izendatzeko erabiltzen da. Leku-izen honen jatorria Sondikako baserri bat da, dagoeneko desagertua. Erandion 1803an dokumentatzen da lehenengo *Cauquerreca* formaz. Sondikan ordea 1704 eta 1796ko sutegi-erroldetan aurkitzen dugu "Cabuco erreca" formaz. Lehenengo elementuak etimologia iluna du, baliteke akabuko (amaierako) etimoa izatea; bigarrena, erreka hitza dugu. Ahoz *Kaukarraka* esaten dioten arren, idatzizko forma zuzena Kaukoerreka da.



segundo elemento es la palabra *erreka* (arroyo). Oralmente, aunque se conoce por *Kaukarraka*, la forma escrita correcta es **Kaukoerreka**.

Este topónimo se utiliza para nombrar un camino del barrio de Faoeta. El origen de este nombre es un caserío de Sondika, actualmente desaparecido. En Erandio se documenta por primera vez en el año 1803 bajo la forma de *Cauquerreca*. En Sondika, en cambio, podemos encontrarlo en las fogueraciones de 1704 y 1796, como "Cabuco erreca". El primer elemento tiene una etimología difícil; pudiera provenir del étimo *akabuko* (del final); el



TORREZARRA

# Asuko (Faoeta) etxaldeak mendez mende Caseríos de Asua (Faoeta) a lo largo de los siglos

XVII. MENDEKO ETA LEHENAGOKO ETXEAK		XVIII. MENDEKO ETXEAK
CASAS DEL SIGLO XVII Y ANTERIORES		CASAS DEL SIGLO XVIII
Arana (Arantxu) *	Labekoa	Antonbidea *
Astikaerdikoa	Prudentzioetxe *	Armotxa
Astikaosteikoa *	Real de Asua *	Arteaga *
Astikaurrekoia	Tomasena	Dendariena
Asuko dorrea *	Torrebarria *	Errota
Aurteneko	Torrebiarte *	Kurrullu
Bengokoa	Torrezarra	Kurtzelarreta(goikoa)
Bidekoa	Urazandi (Mayorazgo)	Kurtzelarretabekoa *
Elorriaga *	Urazandi (beste bat) *	Lastetxebekoa
Erreenterizarra (Txoriena)	Urazanditxikerra (Etxatxu) *	Leurokoerrotta
Estartetxe *	Zarraga	Motsena
Faoaurrekoetxea ( <i>Aurrekoetxe</i> )	Zarragatxu *	Olpe *
Faoeta		Solobiarte *
Faoetxebarria		Tellerizarra *
Goikoko		Torrerdikoa *
Iguaur *		Ugarte *
Jauregi		

## Asuko (Faoeta) etxaldeak mendez mende Caseríos de Asua (Faoeta) a lo largo de los siglos

XIX. MENDEKO ETXEAK	XX. MENDEKO ETXEAK
CASAS DEL SIGLO XIX	CASAS DEL SIGLO XX
Aldaiosteko *	Aldai *
Asuko benta *	Armotxagoikoa *
Bega (Jainkotxu) *	Atxaeradio
Domartinena	Atxalandabaso
Goikoetxea *	Bekoetxe
Goikotaberna *	Bekosangurti
Katea *	Bengokoazpi
Kurrullubarri	Bidekoste
Lastetxegoikoa	Etxetxikerra
Olaskoaga *	Ibaiondo
Torretagana	Lubarri
Urazandiosteikoa *	Sangurti
	Sangurtibarri
	Txitxiturri *

## GOIERRI

Goierrin gaur egun diren etxalde gehienak XVII. mendean ere hantxe ziren. Auzo honek aldaketa gutxi izan du, eta Erandiok auzo horretan gorde du ondoen hizkuntza eta tradizioa. Auzo honen izenak, auzoaren kokaguneari egiten dio erreferentzia goiko herria baita Goierri. Garai batean *Goiherri* h-dun forma idatzi bada ere, toponimian ez da h-rik idazten ahoskatzen ez den eremuetan, Bizkaian esate baterako, eta hori dela-eta idazkera egokia **Goierrri** dugu, Euskaltzaindiaren gomendioei jarraituz.

Goierrri sei azpi auzotan banatu dezakegu: **Martiartu, Arondo, Mota** (garai batean **Agirregoitia** izenaz ezaguna), **Demosti, Ugarte** eta **Meso-Ikatza**.

La mayoría de los caseríos que existen actualmente en Goierri ya se encontraban allí en el siglo XVII. Este barrio no ha sufrido apenas transformaciones, y prueba de ello es que constituye el barrio donde mejor se han conservado el euskera y las tradiciones. El nombre hace referencia a su situación, puesto que Goierri quiere decir literalmente "pueblo de arriba". Hay que decir que a menudo se ha utilizado la forma *Goiherri*, incluyendo la h en su grafía. Pero debemos aclarar que la letra <h> no se utiliza en la forma escrita en aquellos territorios en los que no se pronuncia, por ejemplo en Bizkaia, y en consecuencia, la grafía correcta es **Goierrri**, siguiendo la recomendación de Euskaltzaindia.

Goierrri se puede dividir a su vez en seis barrios: **Martiartu, Arondo, Mota** (anteriormente conocido como **Agirregoitia**), **Demosti, Ugarte** y **Meso-Ikatza**.



GOIERRI

## Degoiena (*Degollene*)

Baserri izen honi dagokion dokumentazio zaharrenari begira 1796. urtean "Askorra, De Gollena" forma topatu dugu. Jasotako forma horrek argi uzten du gaztelaniazko "de" preposizioa eta Goiena (gaztelaniazko grafiaz *Goyena*, edo *Gollena* aldaeraz ere idatzi izanda) euskal abizenaren elkarretaik datorrela. Hortaz, euskarazko etimoa duenez gero, euskal grafiaz eman behar da eta **Degoiena** idatzi. Loturik idatziko dugu dokumentazioan nagusiki loturik ageri delako eta horrela ahoskatzen dutelako inguruokoek. Gainera, ele bikoitzaz <ll> idazteak erdarazko "degollar" aditzarekin nahastea ekar dezake, eta hori interpretazio okerra da. Dena dela esan beharra dago Degoiena baserriari **Askorrenaerdikoa** izena ere eman izan zaiola.



En lo que respecta al nombre de este caserío, hemos encontrado la forma "Askorra, De Gollena" en un documento datado en el año 1796. Dicho nombre evidencia que se deriva de la unión entre la preposición castellana "de" y el apellido vasco Goiena (en la grafía castellana también puede aparecer escrito en las formas *Goyena* o *Gollena*). Por tanto, puesto que consta de un étimo en euskera, debe respetarse la grafía euskaldun y escribirse **Degoiena**. Además, se utilizará unido puesto que en la documentación consultada aparece mayoritariamente en esa forma y porque así lo pronuncian los vecinos de

las inmediaciones. Por otra parte, la escritura incorrecta con <ll> puede causar confusión con el verbo castellano "degollar", que daría lugar a una interpretación errónea. De todas formas, hay que decir que al caserío Degoiena también se le ha denominado con el nombre **Askorrenaerdikoa**.

## Gobelaerrota (*Gollurta*)

Dokumentazio zaharra arakatzea ezinbesteko lana da leku izen askoren jatorria topatzeko. Badira Erandion hainbat eta hainbat izen, desitxuratzetik handia izan dutenak, esaterako Goierriko *Gollurta* izeneko baserri-errota zaharra. Idatzizko dokumentazioan **Gobelaerrota** izena ageri zaigu behin eta berriz 1600. urteaz geroztik (etxe hau beraz XVI. mendekoa da gutxinez).

Gracias a la documentación histórica podemos establecer el origen de algunos nombres de lugar que han sufrido una gran desfiguración a lo largo del tiempo. Uno de esos ejemplos lo tenemos en el barrio de Goierri, precisamente en el viejo caserío-molino de nombre *Gollurta*. Así, en la documentación escrita aparece profusamente el nombre **Gobelaerrota** desde el año 1600 lo que nos indica que este caserío data, al menos del siglo XVI.



## Askorbeaskoa (*Askorbeko, Askorrosko*)



Ahoz Askorrosko edo Askorbeko izenaz ezaguna den arren, baserri honen jatorrizko idatzizko era osoa **Askorbeaskoa** da. Inguruko baserri multzoa da **Askorra**, baserri multzo honetakoak dira: **Askorbeaskoa, Askorraurrekoia, Askorraosteinkoa, Askortxu eta Degoiena** (Askorrenaerdikoa).

Aunque oralmente se conoce como *Askorrosko* o *Askorbeko*, la forma escrita completa original del nombre de este caserío es **Askorbeaskoa**. Se denomina **Askorra** al conjunto de caseríos de la zona que estuvo compuesto por los siguientes edificios: **Askorbeaskoa, Askorraurrekoia, Askorraosteinkoa, Askortxu y Degoiena** (Askorrenaerdikoa).

## Etxatxueta (*Itutas*)

Bitxia da Goierriko **Etxatxueta** izeneko etxalde-izenaren desitxuratzea. Bertakoek *Ituta(s)* edo *Etxuta* esaten diote. Ahoz erabiltzen den forma hori, forma osoaren laburdura argia da. Oso baserri zaharra da, baina gaur egun aurriak baino ez daude Ugarte auzorako bidegurutzean.

Es igualmente curiosa la deformación del nombre del caserío **Etxatxueta**, también en el barrio de Goierri. La gente del lugar denomina esta casa *Ituta(s)* o *Etxuta*. Esa forma oral es claramente una abreviatura de la forma completa. Se trata de un caserío muy antiguo, del cual solo quedan actualmente las ruinas en el cruce del camino hacia el barrio de Ugarte.



## Martiartu



Erandioko auzo zaharra eta deitura ezaguna dugu **Martiartu**. Koldo Mitxelena hizkuntzalari entzutetsuaren ustez, Marti(n) izena eta i(g)artu hitzaz osatua dago. Erandion bertan badira antzeko toponimoak, **Lopeigartu** esate baterako. Ahoz *Martu* esaten diote Goierriko auzo zahar honi, euskarazko fenomeno fonetikoari jarraituz, hau da, antzeko bi silaba bata bestearen ondoan daudenean bat desagertu egiten da. **Martiartu** izenezan errepikatzen diren silaba biko bi forma oso agertzen zaizkigu: <artu> eta <artu>.

Es un entorno vecinal muy antiguo y un apellido conocido. A juicio de Koldo Mitxelena, prestigioso lingüista vasco, está compuesto por el nombre *Marti(n)* y la palabra *i(g)artu*. Existen otros topónimos similares en Erandio, como por ejemplo, **Lopeigartu**. *Martu* es la forma oral más común para designar a este viejo barrio de Goierri, cumpliendo un fenómeno fonético común en euskera, esto es, cuando existen dos sílabas similares una al lado de la otra, una de ellas desaparece. En el caso del nombre **Martiartu**, aparecen dos formas completas similares compuestas por dos sílabas: <artu> y <artu>.



MARTIARTUTORREA

# Goierriko etxaldeak mendez mende Caseríos de Goierri a lo largo de los siglos

XVII. MENDEKO ETA LEHENAGOKO ETXEAK CASAS DEL SIGLO XVII Y ANTERIORES			XVIII. MENDEKO ETXEAK CASAS DEL SIGLO XVIII
Agirregoitia *	Izardui	Pinuzarra	Agirregoitiaetxebarria *
Arondo	Kristobalena	Sarria	Arondosteikoa
Arondoaurrekoia	Libao(atzekoa)	Ugartebekotorrea	Askorraosteinkoa (erdikoa) *
Arrigunaga *	Libaoaurrekoia	Ugartegoikotorrea	Askortxu
Askorbeaskoa (Askorrosko)	Markoena	Ugarterdikotorrea	Aurrekoetxe
Askorraurrekoia *	Martiartugoitia ( <i>Martugoiti</i> )		Degoiena
Beaskoerrotxa (Beskorta)	Martiartutorrea		Demostiaurrekoia
Boluia (Boluntxu) *	Martiartuzarra ( <i>Martuzarre</i> )		Felipena ( <i>Filipene</i> )
Demosti(bekoa)	Mesobekoa (Mesoatzekoa)		Libaoerdikoa
Demostigoikoa	Mesokotorre		Mesoena ( <i>Mesone</i> )
Demostiostekoia (Demostierdikoa)	Mesozarra (Mesoerdikoa) ( <i>Mesozarre</i> )		Santutxu (San Kristobal)
Etxatxueta ( <i>Itxuta</i> )	Miragaia ( <i>Mirigi</i> )		
Gobelaeerrotxa (Gollurta)	Miragaia * (beste bat)		
Goiiri *	Morteru		
Ikatzaerdikoa	Mota		
Ikatzaosteikoa	Motagana		
Ikatzaurrekoia	Peñas		

## Goierriko etxaldeak mendez mende Caseríos de Goierri a lo largo de los siglos

XIX. MENDEKO ETXEAK	XX. MENDEKO ETXEAK
CASAS DEL SIGLO XIX	CASAS DEL SIGLO XX
Areatxu	Aizeona
Demostiaurrekoa	Barrenabaso
Izarduiazpi *	Bidegana
Loiumendi *	Bideondo
Moroena *	Biona
Motabarri	Degoienabarri
Pozozabaleta *	Demostitxikerra
	Desengaño
	Eguzkieder
	Goikoetxebarri
	Goikolanda
	Goribarri
	Gorritxuena
	Gure Arte
	Ibarburu
	Ibargana
	Ibarroste
	Ikastolarte
	Ikatzabarri
	Ilargiren Kibia
	Iturrondo
	Larresibarri
	Lubarrieta
	Martinetxebarri
	Martintxuena
	Mendigorri
	Mesobarri
	Olabeiti
	Peñaurrekoa
	Pinubeko
	Santutxubarri
	Sendiaga
	Solobarri
	Ugartabarri

## ERANDIO GOIKOA (CAMPÀ, LANDA)

Erandioko jatorrizko herri-gunea auzo honetan sortu zen ermita txiki baten inguruan XII. mendearen. Gerora ermita horrek indarra hartu eta parroquia bihurtu zen. Dokumentazio historikoan **Campa** da ageri den izen nagusia. Erandioko toponimia historikorik gehiena euskalduna dela gogoan hartuz, zaila egiten zaigu pentsatzea bertako biztanleek erdal toponimo horrekin ezagutuko zutela inguru hori. Datu zehatzik ez badago ere, guztiz zilegia dirudi pentsatzea **Landa** izango zela bertakoek erabiltzen zuten izena. Nolana ere, herriaren gune garrantzitsua zenez gero, Erandio izen soilaz ezagutu izan dute gehienek inguru hau. Udaletxea Erandiogoikotik Altzagara aldatu zenean Altzagari Erandio esaten hasi zitzzion. Gerora, bereizteko, **Erandiogoikoa** eta **Erandiobekoa** bata bestearen antonimo gisa erabili izan dira.

Euskaltzaindiaren irizpideei jarraituz leku izenak elkarturik idatzi behar dira tartean deklinabide markarik ez dagoenean, eta beraz **Erandiogoikoa** loturik idatzi behar da, hori baita euskal toponimiaren tradizioa eta joera, leku-izenak loturik ahoskatzea eta idaztea.

Originariamente, el núcleo urbano de Erandio se formó en el siglo XII, en torno a una pequeña ermita situada en este barrio. Posteriormente, la ermita adquirió poder y se convirtió en parroquia. En la documentación histórica, el nombre principal del lugar es **Campa**. En cualquier caso, teniendo en cuenta que la práctica totalidad de la toponimia de Erandio es en euskera, se hace difícil pensar que los habitantes de ese núcleo conocieran ese lugar mediante un topónimo no-vascófono. Aunque no contamos con datos que lo corroboren, cabe pensar que los lugareños utilizaran el nombre **Landa**. Aún así, como se trataba del núcleo más importante del municipio, la mayoría han conocido este barrio con el nombre de Erandio. Cuando el ayuntamiento se trasladó de Erandiogoikoa a Altzaga, comenzó a llamarse Erandio a la zona de Altzaga y, posteriormente, para diferenciar ambas zonas, se utilizan los topónimos **Erandiogoikoa** y **Erandiobekoa** uno como antónimo del otro. Siguiendo los criterios de Euskaltzaindia, los nombres de lugar compuestos, cuando no existen marcas de declinación entre los elementos que lo componen, deben escribirse unidos, tal y como se pronuncian puesto que




Amaierako –a artikula da, eta beraz deklinatzean honela erabiliko dugu: Erandiogoikoko, Erandiogoikotik eta abar, baina Erandiogoikoan.

la tradición y la tendencia de la toponimia vasca así nos lo indican. Es decir, debemos escribir y pronunciar **Erandiogoikoa**.

La –a final es el artículo, por lo que a la hora de declinarlo en euskera, utilizaremos las formas siguientes: Erandiogoikoko, Erandiogoikotik etc., pero Erandiogoikoan.

## Agirre (Agarre)



AGIRRE BASERRIA

Bizkaiko euskaraz oso normala da **Agirre** toponimoa *Agarre* ahoskatzea, aurreko silabako bokalaren eraginez gertatzen da hau. Nolanahi ere, Agirre da idatzizko forma zuzena.

Agirre izeneko baserriak ohikoak dira Euskal Herrian. Agirre hitzak bisitan edo agerian dagoen lur eremua esan nahi du. Erandiogoikoan dagoen Agirre izeneko baserri multzoaz gain (Agirreosteikoa, Agirreaurrekoa, Agirretxu eta Argirrerdikoa edo Iturgana), bada izen bereko beste baserri bat Arriagan, dorretxea zena, eta garrantzitsua gainera; izan ere, hainbatek hidalgia espedienteak hasi zituzten bertakoak zirela esanaz.

En el euskera vizcaíno, es frecuente pronunciar el topónimo **Agirre** como *Agarre*, fenómeno producido por causa de la vocal de la primera sílaba. En cualquier caso, la forma escrita correcta es Agirre.

En el País Vasco son comunes los caseríos denominados Agirre. Su significado hace referencia al terreno que está a la vista. En Erandiogoa además del conjunto de caseríos denominado Agirre (Agirreosteikoa, Agirreaurrekoa, Agirretxu y Argirrerdikoa) ubicados en Erandiogoikoa, existe también otro caserío de nombre Agirre en Arriaga cercano a los caseríos Arribetzi y Arriagatorre; se hace referencia a ese caserío-torre en numerosos expedientes de hidalguía, lo que nos indica la relevancia que tuvo en su época.

## Agirrebengoa (*Agorramengo*)

